



Somorrostroko San Joan eliza (Muskiz)

Eraikina

Gurutze formako planta du, hiru zatikoa gehi zabalera bereko goi-buru oblongoa; gurutzadurako besoak karratuak dira -kaperetan-, bakoitzak bere sakristiarekin. Goi-buruaren atzean, sakristia nagusia dago. Harlangaintzez eta harlanduz egina dago, gurutze nagusiaren menpeko makla ederrez. Maklen aukera hori oso ikusgarria da, eta ikusgarritasun horretan eginkizun handia betetzen dute horma-bular ukondotuek eta beti mailatuta ageri diren gurutzadurako horma-bularrek. Barrutik, berriz, gurutzaduran alakaturiko pilazita toskanarrak dituzte, harri soilean, baina gainerakoa luzituta dago. Hala, kontrastea sortzen da.

Gurutzamenduko ganga du, erdi-puntuko arku sortzaileetan oinarrituta eta hainbat diseinutakoa: gurutzeko beheko besoko hiruko-kontrakoak dituzten hirukoetatik gurutzamenduko konkorduraino. Berriz eraikin ziren Espainiako gerra zibilaren ondoren.

Oinetako hastialetik eta nabeko bitarteko tartetik sartu behar da bertara, portiko baten azpian babesturiko erdi-puntuko arkutik; bestea, berriz, hastial edota fatxada ikusgarri batean dago sartuta: puntu erdikoa eta harian kutxindura duen arku handiagoan sartuta dagoen harrizko tinpanoarekin txarabeldua. Gorago, harrizko Joan Bataiatzailea duen horma-hobi bat dago. Fatxadako erdiko zati horren akaberan frontoi hautsizko kanpai-horma bat dago; alboetan, berriz, planta karratuko dorretxoak ageri dira, harrizko kapitel piramideko akaberarekin.

Azterketa

Quadra familiaren legatua izan zen eliza, haien artean Villariasko markesarena eta Burgosko artzapezpikuarena. Horiek guztiek eragin eta baliabide handiak bazituzten ere, Euskal Herriko maisu bati agindu zioten lana, Pedro de Zerecedari hain zuzen ere (1742). Artista horrek ganga-forma aukeratu zuen, antzinako erara, hots, gotikoaren erara, baita forma klasikoak ere, eskurialentseen (kapitelak) ezaugarriekin.

Eliztarrekin ados jarrita, sustatzaileek berekin gordetzen zituzten gurutzadurako besoak, eta bertan egin zituzten bi kapera pribatu.

Altzariak

Bayero Ortiz de Palacio eta Jeronimo Ballenilla maisuek kontrataturiko erretaula nagusi rococoa galduta, bi kaperetako burdin hesi gelditzen dira gehi Villariasko Markesaren busto bat Ebanjelioarenean, edo San Klementerena. Burdin hesi aberatsa da, familiaren armarriko akaberak dituzten eseen eta zeen burdinazko balaustreekin, betiere San Genaroren idunekoarekin apainduta. Sebastian de la Quadra markesaren marmol zurizko bustoa harri beltzezko horma-hobi baten barruan dago, eta estilo akademikokoa da, gorteko estilokoa, Joan Bautista Olivierenaren izan daitekeena (XVIII. mendearen erdialdekoa hain zuzen).

Pareko kapera edo Salesko San Francisco delakoa ixteko ere burdina erabili da; kapera, berriz, soilagoa da. Armarriri bera agertzen da, baina oraingoan sei borlako kordioekin eta kapeluarekin: Pedro de la Quadra Burgosko artzapezpikuaren blasoia, kapera berean harriz berriz emana.

Balorazioa

Eliza bat dator itsasadarraren, zubiaren eta antzinako ontziolaren inguruarekin, eta lanaren ikusgarritasuna zein batere abangoardista ez den diseinua baloratu behar dira, baita Quadra familiakoek beren kapera pribatuetan utzitako oroigarriak ere, batez ere Villariasko Markesaren bustoa edota erretratua. Sustapen pribatu gisa, eskualdeko eta Bizkaiko lanik garrantzitsuena da XVIII. mendetik hona.

Testua: José Ángel Barrio Loza



Somorrostroko San Joan eliza

Muskiz.

Nola heldu:

N-634 errepidetik, ertzetik
Tren geltokia du (RENFE)

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Muskiz)

- Muñatones gaztelua.
- El Pobaleko burdinola.
- Kobarongo mea kargatzeko tokia.